

## **6. ildoak: ERROTULUAK, TOLDOAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO DIRULAGUNTZAK**

### **1. NORENTZAT IZANGO DIRA DIRULAGUNTZAK**

- Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduak.
- Herriko elkarteak.
- Publizitatearen gaineko udal zerga kobratzeko Zerga Ordenantza aplikatzen zaien bestelako erakundeak, ofizialak ez direnak.
- Orokorrean, establezimendua, egoitza edo denda kalean duten eta hizkuntza paisaian eragin nabarmena duten saltokiak, bulegoak eta bestelakoak, adibidez, lanbide liberalak, autonomoak. Kanpo geratzen dira finantza erakundeak, enpresa handietako ordezkariak-bulegoak eta antzekoak.

### **2. ZER DA DIRUZ LAGUNDUKO DENA**

Dirulaguntza honako elementu hauek jaso ahalko dute:

- Errotuluak.
- Toldoak edo olanak.
- Ibilgailu komertzialen errotulazioa.
- Establezimenduetako pertsianen errotulazioa.
- Biniloak.
- Kaleko hizkuntza paisaian eragin nabarmena duten bestelako euskarriak.

### **3. ZENBATEKOAK DIRA DIRULAGUNTZAK**

<b>A) Euskara hutsean</b>	<b>Euskara hutsez</b> idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren <b>%50</b> ordainduko zaio, <b>gehienez, 360 euro.</b>
<b>B) Ele bietan</b>	<b>Ele bietan</b> , idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren <b>%30</b> , <b>gehienez 180 euro</b> ordainduko zaio, <b>beti eta</b> elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu, hau da, <b>euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko trataera badu.</b>

### **4. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK**

4.1. A) eta B) arauak kartel edo **elementu bakoitzari** aplikatuko zaizkio. Beraz, denda batek, errotulu bat baino gehiago jarri dezake, bere fatxadak hala eskatzen badu.

4.2. **Ezin izango** dute A) eta B) ataletan azaltzen den dirulaguntzarik lortu, **bakarrik izena, edo abizena**, edo izen-abizenak dituzten errotuluek.

4.3. **Ez du dirulaguntzarik jasoko txarto idatzita** edo oker gramatikarik duen errotulurik (honelakoak gerta ez daitezen irakurri ondoren datorren 4.4. puntua).

4.4.- Udalak bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, **itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du doan**; eta horren berri emango die interesa dutenei.

### **5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

**01.- Faktura originala (Errotulua, olana, ibilgailu komertzial) euskaraz jarri dela ziurtatzeko.**

**02.- Argazkiak (aldatutako errotulu edo elementu(ar)en bi argazki).**

**03 eta 04.- Ziurtagiriak: Gizarte Segurantzaren eta Foru ogasunarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak.** Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioski eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko ditu ziurtagiri hauek.

Getxoko Udalarekin zorrik ez izatea ere konprobatuko du Euskara Zerbitzuak.